LSB-USO
Pablo Picasso, 2 Entreplanta
Tel.: 94 444 16 66 - 48012 BILBAO



# Bestelako Xedapenak

## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### 1035

AGINDUA, 2008ko otsailaren 18koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, langileek, dagozkien ordainsariak jasoz, 2008ko martxoaren 9ko hauteskundeetan parte har dezaten arauak ematen dituena.

Diputatuen Kongresua eta Senatua desegiteari eta hauteskundeetarako deiari buruzko urtarrilaren 14ko 33/2008 Errege Dekretuz, martxoaren 9ko Hauteskunde Nagusietarako deia egin eta gero, beharrezkoak diren neurriak hartu behar ditu sail honek, langileek bozketa horretan parte har dezaten eta ordain-sariak jaso ditzaten.

Horretarako, martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuz onarturiko Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateratuko 37.3.d) artikuluak zehazten duena kontutan izanik, bidezkoa da indarrean dagoen legedia gauzatzea, Autonomia Estatutuko 12.2 artikuluan erabakitakoa betez.

Horren ondorioz, honako hau

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* 2008ko martxoaren 9ko hauteskundeetan hautesle izan daitezkeen langileek egun horretan asteroko atseden egunaz baliatzerik ez badute, ordaindutako baimena hartzeko eskubidea izango dute, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateratuko 37.1 artikuluaren arabera. Honela zehaztuko da baimen horren iraupena:

a) Langileen ohiko lanaldia, legezkoa edo hitzartutakoa, hauteskunde-kolegioak irekitzeko ordutegiaren barruan sartzen bada oso-osorik, ordaindutako baimena lau ordukoa izango da.

b) Langilearen lanaldiaren orduak eta hauteskunde kolegioak irekitzeko orduak zati batean bat baldin badatoz, bat datozen orduak lau edo gehiago baldin badira, baimena lau ordukoa izango da. Bat datozen orduak lau baino gutxiago baldin badira, lanaldiko ordutegia eta hauteskunde-kolegioak irekitzeko orduak bat datozen orduetara mugatuko da baimena.

c) Aurreko kasuetan, enpresan ezarritakoa baino lanaldi laburragoa betetzen duten langileentzat (lanaldia legezkoa izan zein hitzartutakoa izan), enpresaren ohiko lanaldiaren eta horrelako langileek betetzen dute-

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

### 1035

ORDEN de 18 de febrero de 2008, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se dictan normas para que las personas trabajadoras puedan participar, percibiendo sus retribuciones, en las elecciones de 9 de marzo de 2008.

Habiéndose convocado elecciones a Cortes Generales para el día 9 de marzo por Real Decreto 33/2008, de 14 de enero, de disolución del Congreso de los Diputados y del Senado y de convocatoria de elecciones, se hace preciso que por este Departamento se adopten las medidas necesarias para que el personal laboral pueda participar en dicha consulta percibiendo sus retribuciones.

A este fin, y habida cuenta de lo que determina el artículo 37.3.d) del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores aprobado por el Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo, procede llevar a efecto la ejecución de la legislación vigente a tenor de lo dispuesto en el artículo 12.2 del Estatuto de Autonomía.

En su virtud,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Las personas trabajadoras que teniendo la condición de electoras y electores respecto de la consulta electoral del día 9 de marzo de 2008 no disfruten en dicha fecha del descanso semanal previsto en el artículo 37.1 del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, tendrán derecho a un permiso retribuido cuya duración se determinará como sigue:

a) Las personas trabajadoras cuya jornada normal, sea legal o convenida, esté incluida íntegramente dentro del horario de apertura de los colegios electorales, tendrán un permiso retribuido de cuatro horas de duración.

b) Las personas trabajadoras cuya jornada esté incluida parcialmente dentro del horario de apertura de los colegios electorales, disfrutarán de un permiso de cuatro horas si la coincidencia es de cuatro horas o más. Si la coincidencia se produce en menos de cuatro horas, el permiso se reducirá al tiempo que coincidan el horario laboral y el horario de apertura de los colegios electorales.

c) En los supuestos anteriores, cuando se trate de personas trabajadoras que realicen una jornada inferior a la normal, sea ésta legal o convenida, establecida en la empresa, el permiso retribuido se reducirá en propor-

LSB-USO
Pablo Picasso, 2 Entreplanta
Tel.: 94 444 16 66 - 48012 BILBAO



naren arteko aldearen arabera murriztuko da ordaindutako baimena.

d) Hauteskunde-kolegioak irekita egoteko ordutegiarekin ez osorik, ez zati batean bat ez datorren ordutegia betetzen duten langileek ez dute ordaindutako baimenik izango.

*2. artikulua.–* Aurreko artikuluan aurreikusitako kasuetan, enpresaren zuzendaritzari dagokio langileek botoa ematera joateko duten baimena nola banatu erabakitzea, lanaren antolaketa aintzat hartuta eta langileen legezko ordezkarien txostena jaso ondoren.

*3. artikulua.–* Hauteskunde-mahaietako kide edo ikuskatzaile direla egiaztatzen duten langileek hauteskunde egunean ordaindutako egun osoko baimena izateko eskubidea daukate, baita hauteskundeen biharamunean lanaldia bost orduz gutxitzekoa ere. Ahaldun direla egiaztatzen dutenek hauteskunde egunean ordaindutako baimena izango dute. Horietakoren batek gaueko txandan lan egin behar badu hauteskunde aurreko gauean, txanda aldatu egin beharko dio dagokion enpresak, langileak berak horrela eskatuta.

*4. artikulua.–* Aipatutako lanaldi-murrizketak langileek kontzeptu guztiengatik jasotzen duten lansaria murriztu gabe egingo dira, Langileen Estatutuari buruzko Legeko Testu Bateratuko 37.3.d) artikuluan erabakitakoarekin bat etorriz; bozketa ziurtagiria aurkeztea nahikoa izango da horren zurigarri edo, hala badagokio, hauteskunde-mahaiaren egiaztagiria.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko otsailaren 18a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

ción a la relación entre su jornada de trabajo y la normal de la empresa.

d) Las personas trabajadoras que tengan una jornada cuyo horario no coincida, ni total ni parcialmente, con el establecido en los colegios electorales no tendrán derecho a permiso retribuido.

*Artículo 2.–* En los supuestos previstos en el artículo anterior, corresponderá a la dirección de la empresa, en base a la organización del trabajo, la distribución del periodo en que las personas trabajadoras dispongan del permiso para acudir a votar, previo informe de sus representantes legales.

*Artículo 3.–* Las personas trabajadoras que acrediten su condición de miembros de las mesas electorales o de interventores o interventoras, tendrán derecho a un permiso retribuido durante el día de votación, así como a una reducción de cinco horas en la jornada del día inmediatamente posterior a la consulta. Quienes acrediten su condición de apoderados o apoderadas dispondrán de un permiso retribuido durante el día de la votación. Si alguna de estas personas tuviera que trabajar en el turno de noche en fecha inmediatamente anterior a la jornada electoral, la empresa afectada deberá cambiarle el turno, previa petición de la persona interesada.

*Artículo 4.–* La reducción prevista de la jornada laboral se realizará sin merma alguna de la retribución que por todos los conceptos vinieren percibiendo las personas trabajadoras, de acuerdo con lo dispuesto por el artículo 37.3.d) del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, sirviendo como justificación adecuada la presentación de la certificación de voto o, en su caso, la acreditación de la mesa electoral correspondiente.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de febrero de 2008.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

## PERMISOS RETRIBUIDOS PARA PARTICIPAR EN LAS ELECCIONES DEL 9-M

| **SI TRABAJADOR:** | | ***PERMISO RETRIBUIDO:*** |
|---|---|---|
| JORNADA COMPLETA | INTEGRA | 4 HORAS |
| JORNADA COMPLETA | 4 HORAS O MAS | 4 HORAS |
| JORNADA COMPLETA | MENOS DE 4 HORAS | TIEMPO QUE COINCIDA |
| | | |
| JORNADA INFERIOR | | PARTE PROPORCIONAL |
| NO COINCIDE JORNADA | | NO PERMISO |
| | | |
| MESAS | | PERMISO DIA Y REDUCCION 5 HORAS DIA POSTERIOR |
| APODERADOS | | PERMISO DIA |
| MESAS Y APODERADOS EN TURNO DE NOCHE EN FECHA INMEDIATAMENTE ANTERIOR | | CAMBIO DE TURNO PREVIA PETICION |

LSB-USO
Pablo Picasso, 2 Entreplanta
Tel.: 94 444 16 66 - 48012 BILBAO